

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Profesionalak ez diren kirolari federatuek kirol-jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen aldaketa behin betiko onartzea

Hasierako onespeneraren iragarkia 2023ko martxoaren 8ko 28 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen, eta aipatutako espedienteari alegaziorik egin ez zaionez, osorik argitaratu da, indarrean sar dadin.

PROFESIONALAK EZ DIREN KIROLARI FEDERATUEK KIROL- JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZA EMATEKO OINARRIAK

1. artikulua. Oinarriak

Arratzua-Ubarrundiako Udalak uste du kirol-jarduerak egiteak garrantzi handia duela pertsonen prestakuntzan, eta haien sustapena garatu beharreko helburutzat jotzen du. Sustapen hori egiteko moduetako bat Arratzua-Ubarrundia udalerrian erroldatutako pertsonen kirola egiteko dirulaguntzak ematea da.

Kirolaren eta kirol-jardueren antolamendua eta sustapena eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduen kudeaketa Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.19) artikuluan zerrendatutako udal-eskumenen barruan daude.

2. artikulua. Xedea eta helburua

Deialdiaren xedea da udalerrian erroldatuta dauden eta kirol federatu ez-profesionala egiten duten norbanakoei dirulaguntzak ematea arautzea, probintziako, autonomia-erkidegoko, estatuko edo nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte har dezaten.

3. artikulua. Erregimen juridikoa

1. Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzak, oinarri hauez gain, ondorengo araudian ezarritakoaren arabera arautuko dira:

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

• 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa.

- Arratzua-Ubarrundiako Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorra.
- Aurrekontua gauzatzeko oinarriak.

2. Ematen diren dirulaguntzak norgehiagoka-erregimenean emango dira, deialdi ireki baten bidez, aurrekontu-kreditua agortu arte. Dirulaguntzak honako printzipio hauen arabera emango dira:

- Publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- Finkatutako helburuak eraginkortasunez betetzea.
- Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko eraginkortasuna.

3. Dirulaguntza eskaera bat aurkezte hutsak berekin dakar oinarri hauek, Arratzua-Ubarrundiako Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorra eta dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra ezagutzea eta onartzea, bai eta dirulaguntza mota horri aplikatu dakizkiokeen arau guztiak ere, bai zuzenekoak bai subsidiarioak.

4. artikulua. Aurrekontu-hornidura

Arratzua-Ubarrundiako Udalak ekitaldi bakoitzean aurkeztutako eskaerei erantzuteko adina diru bideratuko du, dagokion aurrekontu-partidaren kargura. Ezin izango da dirulaguntzarik eman dagokion aurrekontu-izendapenik gabe.

5. artikulua. Dirulaguntzaren onuradunak

Onuradun izango dira banakako kirolariak, federatuak eta ez-profesionalak, probintziako, autonomia-erkidegoko, nazioko edo nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzeagatik, udal honen diruz lagundutako talde bateko kideak izan ezik. Era berean, ez zaie dirulaguntzarik emango beste udalerrri bateko talde batekin parte hartzen duten kirolariei, baldin eta udalerrian kirol-modalitateko talderik badago.

6. artikulua. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak

Eskatzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Arratzua-Ubarrundia udalerrian erroldatuta egotea, gutxienez urtebeteko antzinasunarekin. Antzinasunak beteta egon beharko du eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.
- Legez federatuta egotea dirulaguntzaren deialdiaren urteari dagokion denboraldian, eta kirolari profesionala ez izatea.
- Deialdia behin betiko ebatzi arte Arratzua-Ubarrundiako Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea. Ondorio horietarako, zuzenbide publikoko diru-sarreretatik eratorritako edozein zor hartuko da kontuan, salbu eta geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda duten zorrak edo zehapenak direnean. Betebehar hori adingabeen edo legez ezgaituen kasuan tutoretza duten pertsonen ere aplikatuko zaie.

7. artikulua. Diruz lagungarri diren gastuak

Diruz lagundu ahal izango da legez onartutako kirol guztietan egiten diren lehiaketetan parte hartzea eta kirol-materiala erostea.

Ez da dirulaguntzarik emango lehiaketetan parte hartzeagatik eta/edo materiala erosteagatik, baldin eta kirolari eskatzailea udalak dirulaguntza eskatu/loritu duen talde bateko kide bada.

8. artikulua. Eskaerak

1. Eskabideak I. eranskinen eredu ofizialean aurkeztuko dira, eta letra larriz bete beharko dira, argi eta irakurtzeko moduan. Eskaerak tutoreek sinatuko dituzte, adingabeak edo legez ezgaituak badira.

2. Aurkezteko epea: deialdian agertzen den data.

3. Aurkezteko modua:

— Aurrez aurre udal bulegoetan, 8: 00etatik 14: 00etara.

— Telematikoki, web-orriaren egoitza elektronikoaren bidez: www.arratzua-ubarrundia.eus, gaituta dagoenean.

4. Eskabideari erantsi beharreko dokumentazioa:

— Federazio-lizentzia.

— Dirulaguntzaren xede den kirol-materialeko gastuari dagokion fakturaren jatorrizkoa, bai eta ordainagiria ere. Eskudirutan ordainduz gero, jaulkitzaileak zigilatu beharko du faktura, eta eskurako ordainketa agerraraziko du.

– Urtean zehar probetan parte hartu izanaren egutegia, egiaztagiria eta zerrenda xehatua, sinatuta, Euskal Autonomia Erkidegokoak, estatukoak edo nazioartekoak diren adieraziz.

– Diru-sarrera egitea nahi den kontuko erakundea eta IBAN, titularra adierazita, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

5. Eskabidea aurkezten duten eskatzaileek honako hauek onartzen dituzte:

Eskabideko datuak udal-eroldarekin gurutzatzea, eskatzailea eta tutoreak, hala badagokio, Arratzua-Ubarrundiako udalerrian erroldatuta dauden jakiteko.

Udaleko zerga-bilketako zerbitzuekin datuak gurutzatzea, eskatzaileak edo, hala badagokio, tutoretzak zerga-betebeharrak egunean dituen jakiteko.

9. artikulua. Eskaerak aztetzea eta ebaztea

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, 10 eguneko epean betetzeko eskatuko zaio eskatzaileari, eta adieraziko zaio ezen, dokumentazioa aurkeztu ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, ebazpena eman ondoren.

Udalbatzak emango ditu dirulaguntzak, osoko bilkuran aztertu beharreko gaiei buruzko Informazio Batzordeak proposatuta.

10. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa

Ondorengo dirulaguntzak ezartzen dira:

– Kirol-materialerako: gastuaren ehuneko 50, 100 euro gehienez.

– Lehiaketak egiteko:

• Probintzia mailako lehiaketak: 50,00 euro.

• Probintzia mailako lehiaketak eta Euskadi mailako lehiaketak: 120,00 euro.

• Probintzia mailako lehiaketak gehi Euskadiko mailako lehiaketak gehi Estatu mailako lehiaketak: 200,00 euro.

• Estatu mailako lehiaketak gehi nazioartekoak: 230,00 euro.

Kirol-materialerako 100,00 euroko gehieneko muga ez da aplikatuko, baldin eta, dagozkion esleipenak egin ondoren, aurrekontu-partida agortzen ez bada. Kasu horretan, gainerako zenbatekoa proportzionalki banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, betiere egindako gastuaren ehuneko 100 gaingitu gabe.

Aitzitik, esleitutako kreditua aurkeztutako eskabide guztiei erantzuteko nahikoa ez bada, kirol-materialerako dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da, guztiei erantzun ahal izateko.

11. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira eskatzaileak helburu bererako jasotzen duen beste edozeinekin. Hala ere, udal honek ematen duen dirulaguntza ezin izango da izan, ez bakarka, ez beste administrazio, erakunde edo organismo publiko batek helburu bererako emandako beste dirulaguntza batzuekin batera, ikasketak egiten dituen pertsonaren jardueraren kostua baino handiagoa.

Hala ere, dirulaguntza horiek bateraezinak dira eskatzaileak parte hartzen duen taldeari udalak eman diezazkiokeen dirulaguntzekin. Horrela, udalak taldeari dirulaguntza ematea aurreikusten badu, parte-hartzaileak banaka aurkeztutako eskaera ukatuko du.

12. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea

Dirulaguntza epe bakarrean ordainduko da, behin ebazpena egin ondoren, eta aurrekontu-ekitaldia amaitu baino lehen.

13. artikulua. Laguntzen kontrola eta zuriketa

1. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikulua 7. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik, eskola-garraiorako dirulaguntzak emateko, eskatzaileak edo, hala badagokio, tutoreak deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko da, ez besterik.

2. Hala ere, onuraduna behartuta dago udalari jakinaraztera kontzeptu horretarako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk lortu dituela, horiek gertatzen diren unean.

3. Laguntzak jasotzen dituztenei aplikatu dakizkiekeen itzulketak, zehapenak eta erantzukizunak arautzeko araubidea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Arratzua-Ubarrundiako Udalaren Dirulaguntzak Arautzen dituen Ordenantza ezarritakoa izango da.

14. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak

Arau-hauste eta zehapen administratiboei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 52. artikuluan eta hurrengoetan eta Udalak dirulaguntzak eta laguntzak ematea arautzen duen ordenantzaren 14. artikuluan xedatutakoa beteko da, eta ordenantza horren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera zigortuko dira.

15. artikulua. Legeria gehigarria

Oinarri hauetan aurreikusi ez denerako, Udalak dirulaguntzak eta laguntzak ematea arautzen duen ordenantza eta dirulaguntzei buruzko lege orokorrean eta hori garatzen duen Erregelamenduan xedatutakoa beteko da.

Hala argitaratzen da, zabalkunde orokorra izan dezan.

Durana, 2023ko apirilaren 11

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE



FEDERATUTAKO KIROLARI EZ PROFESIONALEK KIROL JARDUERAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA ESKABIDEA

IZENA ETA ABIZENAK EDO SOZIJETATEAREN IZENA		NAN-AIZ-IFK	
ORDEZKARIA (IZENA ETA ABIZENAK)		NAN-AIZ-IFK	
KOMUNIKAZIOA-JAKINARAZPENA EGITEKO DATUAK			
Kalea	Zk	Solairua	Herria
Posta-Kodea	Udalerrria	Lurraldea	
Posta elektronikoa	Telefono zk.	Mugikorraren zk.	

Nori egin jakinarazpena
Nola egin jakinarazpena

Interesatua
 Posta

Ordezkarria
 Elektronikoki

AZALTZEN DUT

.....n federatuta nagoela, ez naizela kirolari profesionala eta honako kirol jardueran eman dudala izena:.....

Deialdi hau egin den garaian, Herritarren Udal Erroldan gutxienez urtebeteko aintzinasunarekin izena emanda nagoela.

Ogasunarekiko eta Udalarekiko dituen zerga-betebeharrak eguneratuta dituela. Adingabeen edo tutoretzapekoen kasuan, betebeharrak hau tutoreen ardura izango da.

Helburu honetarako beste diru-laguntzaren bat eskatu duela, ondorengo erakundeari:.....
Kopurua:..... euro.

EZ duela helburu honetarako beste diru-laguntzarik eskatu.

HONAKOIA ESKATZEN DUT:

Aipatutako deialdia ebazterakoan, egindako eskaera kontuan izatea, eta, hala badagokio, dirulaguntza ematea.

ERANTSITAKO AGIRIAK

Federatu-lizentzia, egutegia, urtean zehar parte hartutako proben zerrenda zehaztua eta partehartzeen ziurtagiria. Zein mailatakoak diren zehaztu beharko da: lurraldea, Euskadi, estatua edo nazioartekoa.

Kirol-materiala erosi izanak ekarritako gastuari dagokion jatorrizko faktura, eta ordaindu izanaren agiria. Ordainketa eskura egin bada, faktura jaulkitzaileak zigilatatu behar du, eta bertan azaldu beharko da eskura ordaindu dela.

Diru sarrera egitea eskatzen den entitatearen izena eta kontuaren IBANa. Kontuaren titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada, bertan zehaztu behar da.

DATA ETA SINADURA:

	DATUEN BABESA
Arduraduna	Arratzua-Ubarrundiako Udala
Helburua	Hainbat jarduera sustatzeko dirulaguntzak ematea
Legitimazioa	Datuen tratamendua lege-betebeharrak eta/edo interesdunen baimenak legitimatzen dute.
Hartzaileak	Jasotako datuak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari lagako zaizkio. Ez da bestelako lagapenik egongo, legeak hala agintzen ez badu.
Eskubideak	Interesdunak bere eskubideak gauzatu ahal izango ditu Arratzua-Ubarrundiako Udalarekin (Uribea kalea 12, 01520 Durana) harremanetan, arduradun gisa. Datuen kontserbazio-modua legeak agindutakoa izango da, datuen helburuaren arabera. Datuak ez dira erabiliko erabaki automatizatuak lantzeko.

Arratzua-Ubarrundia Udala / Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia - Uribea Kalea, 12 01520 – Durana (Araba)